

*1991ko Udal eta Batzar Nagusietarako Hauteskundeetan botoa nola eman*

# Zure Aldundiak berri ematen dizu

*Gipuzkoarrok igande honetan Gipuzkoako lau hauteskunde zirkunskripziotako ordezkariak hautatuko ditugu BATZAR NAGUSIAK osatzearren, Organo honek, burutuko dituen beste funtzio batzuren artean, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN buru izango den DIPUTATU NAGUSIA hautatuko duelarik. Hautapen honetarako sepia koloreko botu-txartelak izango dituzu eta zure zirkunskripzioari dagozkion txartelek soilik balioko dute, bertan alderdi bakoitzak DIPUTATU NAGUSIGAI aurkezten duen hautagaiaren izena agertzen ez bada ere, beste zirkunskripzio batean aurkez bait daiteke.*

*Egun berean, gipuzkoarrok gure UDALETAKO ALKATE eta ZINEGOTZIAK hautatuko ditugu, botu-txartel txurien bidez emanez botoa, udalerri berari dagozkion txartelek soilik balio izango dutelarik.*

*Botu-txartelak, bakoitza bere kartazalean, Hauteskunde Mahaiaren Lehendakariari eman beharko zaizkio, honek hautestontzietan sar ditzan.*

**1991ko maiatzaren 26a.**
**FORU ETA UDAL**
**HAUTESKUNDEAK**

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa